

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

AZPEITIKO UDALA

Iragarkia

Udalbatzarrak 2023ko abenduaren 12an eginiko bileran, hasiera batez onartu du 2024ko Aurrekontu Orokorra. Honako hauek osatzen dute bera: Udalaren Aurrekontu Propioak, Euskara Patronatua Erakunde Autonomoaren Aurrekontuak, Udal Kirol Patronatua Erakunde Autonomoaren Aurrekontuak eta Azpeitia Berritzen, S.A. Udal Sozietate Publikoaren Aurrekontuak.

Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundearen aurrekontuen gaineko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 15.1 artikuluan xedatutakoa betez, Aurrekontua jendeari erakusten zaio, ondorengo arau hauen arabera:

- a) *Erakutsita dagoen lekua*: Kontu-hartzaitza.
 - b) *Aurrekontua aztertzeko eta, hala badagokio, erreklamazioak aurkezteko epea*: hamabost lanegun, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo lanegunetik hasita.
 - c) *Honako hauek jar ditzakete erreklamazioak*: 21/2003 Foru Arauaren 17.1 artikuluan aipatzen diren interesatuek eta erabakiaren aurka bozkatu zuten korporazikideek.
 - d) *Inpugnatzeko arrazoiak*: aipaturiko Foru Arauaren 17.2 artikuluan adierazitakoak, eta ordenamendu juridikoa urratzea.
 - e) *Aurkezteko bulegoa*: Udaletxearen Sarrera erregistroa bulego orduetan.
 - f) *Erreklamazioak jasotzen dituen organoa*: Udalbatzarra.
- Jendeari erakusteko epea igarotzen bada inolako erreklamazio edo oharpenik jaso gabe, Aurrekontu Orokorra onartutzat joko da behin betiko, beste erabakirik hartu behar gabe.

Azpeitia, 2023ko abenduaren 13a.—Alkatea.

(9215)

AYUNTAMIENTO DE AZPEITIA

Anuncio

El Ayuntamiento Pleno, en sesión celebrada el día 12 de diciembre de 2023, ha aprobado inicialmente el Presupuesto General para el ejercicio 2024, integrado por el Presupuesto Propio, el Presupuesto del Organismo Autónomo Patronato de Euskara, el Presupuesto del Organismo Autónomo Patronato Municipal de Deportes y el Presupuesto de la Sociedad Pública Municipal Azpeitia Berritzen, S.A.

En cumplimiento de lo dispuesto en el art. 15.1 de la Norma Foral 21/2003 de 19 de diciembre, presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa, se expone a información pública conforme a las siguientes reglas:

- a) *Lugar donde se encuentra*: En dependencias de Intervención.
 - b) *Plazo para examinarlo y en su caso para presentar reclamaciones*: quince días hábiles contados a partir del siguiente también hábil del de la inserción de este anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.
 - c) *Quiénes pueden interponer reclamaciones*: los interesados que relaciona el art. 17.1 de la Norma Foral 21/2003, además de los miembros de la Corporación que hubieran votado en contra del acuerdo.
 - d) *Motivos de impugnación*: Los señalados en el art. 17.2 de la Norma Foral citada, e infracción del ordenamiento jurídico.
 - e) *Oficina de presentación*: Registro de Entrada del Ayuntamiento en horas de oficina.
 - f) *Órgano ante el que se reclama*: Ayuntamiento Pleno.
- Si transcurrido el plazo de información expresado no se hubiera presentado reclamación u observación alguna, se tendrá por aprobado definitivamente el mencionado Presupuesto General, sin necesidad de adoptar nuevo acuerdo.

Azpeitia, a 13 de diciembre de 2023.—La alcaldesa.

(9215)